



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

ALDUNDIAK, MENDEKOTASUNA DAUKIEN PERSONEI LAGUNTZEKO FORMULA AITZINDARIAK IZANGO DITUAN ETXETIC IZENeko EGUNEKO ZENTRO EREDU BARRIA AURKEZTU DAU BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAN

- **Oposizinoak “positibo” ikusten dau eredia, baina ezagutuazoteko modua eta martxan jarteko epeak kritikau ditu.**

(Bilbon, 2020ko zezeilaren 5ean).- EH Bildu taldeak eskatuta, Sergio Murillo Gizarte Ekintzako foru diputatuak Etxetic izeneko eguneko zentro proiektu barria aurkeztu dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan. Proiektuak, mendekotasuneko egoeran dagozan personei eguneko zentroan lehendik be emoten jaken arretea (25 plaza) eta mendekotasuneko egoeran euren etxeetan dagozan persona gehiagori (751 persona) emongo jaken arretea uztartuko ditu. Persona horreek etxeko laguntzarako eta prebentzinorako teknologien bitartez monitorizauta egongo dira.

Gizarte Ekintzako batzordean Murillok Batzarretako taldeei azaldu deusenez, proiektua barrikuntzaren eresketa publiko prozesuaren bitartez egingo da, aurretik, urtarrilaren 23tik zezeilaren 28ra merkaduan egingo dan kontsultaren ostean. Kontsulta horrek lehenengo etapetako bat bete eban joan dan astean, mendekotasuna daukien eta Bilboko Marcelino Oreja kalean dagon eta orain denpora gitxi barriztau dan Etxaniz zentrotik gertu dagozan personei zerbitzua emoteko teknologia emon daikien eta Aldundiaren proiektuan interesauta dagozan 69 eragile alkartuz.

Azaldu dauenez, Foru Aldundiaren asmoa, horren ostean “18 hilebeteko epea eta milioi bat euroko hasierako aurrekontua” daukan proiektu pilotua gauzatzea da. Helburua Foru egoitzaren etorkizuneko ereduaren entseguak egitea da, hainbat zerbitzu batuz. Alde batetik gaur egun dagozan eguneko zentroek emoten daben zerbitzua eta, bestetik –eta hori da barritasuna– zerbitzu horreek eguneko zentroetatik gertu, “hamar minutura”, bizi diran personei gerturatzea, etxeko laguntzarako eta prebentzinorako teknologiaren bitartez.

Ereduagaz asmau ezkeru, Aldundiak Bizkaia osoan zabaltzea aurreikusten dau. Gaur egun, gradua autortuta eta mendekotasuna daukien “40.000 persona baino gehiago” dagoz, eta horreetatik “21.000 baino gehiagok” Familiako Inguruneko Zainketetarako Prestazino Ekonomikoa (FIZPE) jasoten dabe. Testuinguru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak aurrea hartu gura deutse zahartzearen erronkei, errealidade horri erantzungo deusien formula barriak probatuz.

Orokorrean, Batzarretako taldeek ondo hartu dabe aurkeztutako eredia, baina EH Bilduk eta Podemosek kritikau egin dabe Bizkaiko Batzarrei baino lehenago beste



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

eragile batzuei aurkeztu izana. “Ez da ona horren barri prentsatik jasotea”, esan dau Podemos Bizkaiako Héctor Fernández batzordekideak. Oposizinoak kritikau dauen beste puntuetako bat epeei jagokena izan da. EH Bilduk zalantzan jarri dau “hilebete bat nahikoa izatea” zentroa martxan jarteko beharko dan lehiaketa publikoa ixteko. Eduardo Andradek (Talde Berezia – PP) esan dauenez, zentroak plaza “gitxi” daukaz, eta datorren urtean martxan jarriko dan proiektua orain aurkeztea kritikau dau.

Egoitza publikoak eta inbertsinoko funtsak

Gizarte Ekintzako foru diputatuak EH Bilduren ahozko erantzun-eske biri erantzun behar izan deutse, Otxartagako egoitza eta eguneko zentroa kudeetan dauen enpresea Inbertsino Funts batek erosi izanaren ganean. Arantza Urkaregiren (EH Bildu) eretziz, “larria” da diru publikoz mantentzen dan foru egoitza baten kudeaketea Funts baten esku iztea, soziedade horreen helburu nagusia euren akziodunentzat “ahalik eta irabazi gehien lortzea” dalako, eta horrek “zerbitzuaren kalidadea kaltetu daikelako”. Enpresen irabaziei “muga bat” jarrea eskatu dau.

Murillok “nasaitasunezko” mezua emon gura izan dau, eta zentroaren kudeaketea Aldundiak kontroletan dauela eta haren titulartasuna Azpiegiturak foru soziedadearena dala gogoratuazu dau. Soziedade horrek, 2007tik aldatu ez dan enpresa baten esku itzi eban zentroaren kudeaketea. Diputatuak esan dauenez, foru erakundeak “zorrotz” kontrolauko dau zentroaren jarduereta. “Adi egongo gara, kexarik egon ez daiten” esan dau, eta horren ostean adierazo dauenez, zentro horrek, beste edozeinek daukazan “kontrol, ikuskapen eta gainbegiraketa maila berberak” izango ditu. Kontrol horreek “zorrotzagoak” izango dira Zentroen Dekretu barria indarrean sartuko dan 2021etik aurrera.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

DIPUTACIÓN PRESENTA EN LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA SU NUEVO MODELO DE CENTRO DE DÍA ETXETIC QUE INCLUIRÁ FÓRMULAS PIONERAS DE AYUDA A PERSONAS DEPENDIENTES

- **La oposición ve “positivo” el modelo, pero critica la manera de darlo a conocer y los plazos para ponerlo en marcha.**

(Bilbao, a 5 de febrero de 2020).- A petición del grupo EH Bildu, el diputado foral de Acción Social, Sergio Murillo, ha presentado hoy en Juntas Generales de Bizkaia el nuevo proyecto de centro de día, denominado Etxetic, que combinará la atención propia de un centro de día a personas en situación de dependencia (25 plazas) con la atención a un volumen superior de personas en situación de dependencia que se encuentran en su domicilio (751 personas), monitorizadas a través de tecnologías de apoyo y prevención en el hogar.

Murillo ha explicado a los grupos junteros, en la comisión de Acción Social, que la puesta en marcha del proyecto se realizará a través de un proceso de compra pública de innovación con una consulta previa al mercado, en un periodo que va del 23 de enero al 28 de febrero, consulta que la pasada semana quemó una de sus primeras etapas al reunir a 69 agentes interesados en el proyecto foral que pudieran aportar tecnología para dar servicio a las personas dependientes, en un radio de acción cercano al recientemente renovado centro Etxaniz ubicado en la calle Marcelino Oreja de Bilbao.

Según ha explicado, la intención del Ejecutivo foral es realizar un proyecto piloto posterior que cuenta con un periodo de “18 meses y un presupuesto inicial de 1 millón de euros”. La idea es ensayar el modelo de centro foral del futuro con una combinación de servicios, por un lado, la disposición de la oferta de los actuales centros de día y, por otro -y esto es lo novedoso- el acercamiento de los servicios a las personas que viven en un entorno cercano “a diez minutos” con tecnología de apoyo y prevención en el hogar.

De acertar con el modelo, la Diputación espera extender el mismo por todo Bizkaia, donde en la actualidad hay “más de 40.000 personas” en situación de dependencia con grado reconocido, de las que “más de 21.000” cuentan con una Prestación Económica para Cuidados en el Entorno Familiar (PECEF). En este contexto, la Diputación Foral de Bizkaia quiere adelantarse a los retos del envejecimiento ensayando nuevas fórmulas que den respuesta a esta realidad.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En líneas generales, los grupos junteros han acogido bien el modelo presentado, si bien EH Bildu y Podemos han lamentado que el centro se haya presentado antes a otros agentes que en la Cámara vizcaína. “No es bueno enterarse por la prensa”, ha lamentado el juntero Héctor Fernández, de Podemos Bizkaia. Otro de los asuntos criticados por la oposición ha sido el asunto de los plazos. EH Bildu ha puesto en duda que “baste con 1 mes” para cerrar el concurso público que debe servir para que se ponga en funcionamiento el centro. Por su parte, Eduardo Andrade (Grupo Mixto –PP) ha dicho que el centro está “escaso” de plazas y ha criticado que se presente ahora un proyecto que entrará en funcionamiento el próximo año.

Residencias públicas y fondos de inversión

El diputado foral de Acción Social ha tenido que responder a dos preguntas orales de EH Bildu en torno a la compra por parte de un Fondo de Inversión de la empresa que gestiona la residencia y centro de día de Otxartaga. Para Arantza Urkaregi (grupo EH Bildu) resulta “grave” que se deje en manos de un Fondo la gestión de un centro foral que es mantenido con dinero público, ya que el principal objetivo de estas sociedades es “maximizar los beneficios” para sus accionistas, lo que puede ir “en detrimento de la calidad del servicio”. Ha pedido que se ponga “un límite” a los beneficios empresariales.

Murillo ha querido lanzar un mensaje “tranquilizador” y ha recordado que la gestión del centro está controlada por la Diputación y su titularidad recae en la sociedad foral Azpiegiturak que dejó en manos de una empresa –la misma desde 2007- la gestión del centro. El diputado ha asegurado que la institución foral controlará de un modo “estricto” la actividad del centro. “Estaremos atentos para que no haya quejas” ha dicho, para a continuación trasladar que el centro tendrá “los mismos niveles de control, inspección y supervisión” que cualquier otro, controles que serán “más exigentes” a partir del año 2021 cuando entre en vigor un nuevo Decreto de centros.